

Bilera mota: Udal Osoko Bilkura Arrunta.

Data: 2015-09-23 (asteazkena)

Ordua: arratsaldeko 18:45ean

Lekua: Udaletxeke Areto Nagusia

Erreferentzia: O-15-03

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko irailaren 21a
Idazkari-kontuhartzailea

EGUNEKO GAI ZERRENDA

1.-Azkeneko Udal Osoko Bilkuretako akten onarpena zuzen irizten bada:

-E-15-05 (2015-06-13).

-E-15-06 (2015-07-01).

-E-15-07 (2015-07-06).

-E-15-08 (2015-07-29).

2.-Azkeneko Udal Osoko Bilkura Arruntetik aurrera Alkatetzak eman dituen Dekretuen berri ematea (R-15-089/R-15-131).

3.- "Ezkio-Itsasoko Herri Eskolako Eraikineko Ostalaritza Zerbitzuen Emakida" kontratazioa Antonio Fernandez Jimenez jaunari esleitzeko proposamena.

4.- Zozabarro-Handi baserri aurrekalde eta ezker aldean dagoen 135,76 m2 azalerako partzela desafektatzeko espedientea behin-betiko izaeraz onartzeko proposamena.

5.- 2015eko ekainaren 1eko Kontu Batzorde Berezian eginiko bileran aldeko oniritzia eman ondoren, 2014ko ekitaldiko Aurrekontuaren kontu Orokorra espedientea behin-betiko izaeraz onartzeko proposamena.

6.- Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa IV. Nazioarteko Ekintza-2015 gaiari buruzko adierazpen instituzionala onartzeko proposamena.

7.- "PAH kaleratzeak/STOP desahucios aurkeztutako mozioa onartzeko proposamena.

8.- Erregu eta galderak.

.....//.....

0-0-15-03: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

2015EKO IRAILAREN 23KO UDAL OSOKO BILKURA ARRUNTA

Ezkio-Itsason, bi mila hamabosteko irailaren hogeita hiruan.

Egun honetako arratsaldeko 19:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zuzenetik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide hauek:

- Jose Ignacio Etxezarreta Estala (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK)
- Gorka Sasieta Barrenetxea (EIK).
- Mikel Igartua Anduaga (EIK).
- Maria Luisa Pildain Cenitagoya (EIK)

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz:

- Jose Maria Barrenetxea Aldanondo (EIK)

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Martin Iparragirre Mujika.

.....//.....

1-0-15-03: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1.985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz.

.....//.....

2-0-15-03: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

**LEHEN PUNTUA:
AZKENEKO UDAL OSOKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA ZUZEN
IRIZTEN BADA:**

- E-15-05 (2015-06-13).
- E-15-06 (2015-07-01).
- E-15-07 (2015-07-06).
- E-15-08 (2015-07-29)

Ikusirik Udalkide guztiei bidali zaizkiela aipatuko diren Udal Osoko Bilkurei dagozkien akta-minutak, Udal Osoko Bilkurak, aho batez,

ERABAKI DU:

BAKARRA:

Aurkeztu diren eran onartzea honako akta minutak:

- E-15-05 (2015-06-13).
- E-15-06 (2015-07-01).
- E-15-07 (2015-07-06).
- E-15-08 (2015-07-29)

**BIGARREN PUNTUA:
AZKENEKO UDAL OSOKO BILKURATIK AURRERA ALKATETZAK
EMAN DITUEN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Udal Entitateen funtzionamendu eta antolaketa arautzen duen 2568/1986 Erregalamenduko 42. artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak azken Udal Osoko Bilkura Arruntatik aurrera eman dituen ebazpenen berri ematen dio Udal Osoko Bilkurari.

Ebazpenak: R-15-089/R-15-131 (zerrenda osoa aurkezten da).

HIRUGARREN PUNTUA:

.....//.....

3-0-15-03: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

“EZKIO-ITSASOKO HERRI ESKOLAKO ERAIKINEKO OSTALARITZA ZERBITZUEN EMAKIDA” KONTRATAZIOA ANTONIO FERNANDEZ JIMENEZ JAUNARI ESLEITZEKO PROPOSAMENA.

IKUSIRIK:

Egindako lehiaketa prozedura hutsik geratu ondoren, Ezkio-Itsasoko Udal Osoko Bilkurak, 2015eko uztailaren 29an eginiko ezohiko bileran, onartu zuela Ezkio-Itsasoko Herri Eskola eraikineko ostalaritza zerbitzuen emakida esleitzeko Administrazio Baldintza Zehatzen Plegua onartzea, horretarako publizitate gabeko negoziatu prozedura erabiliz, eta lizitazioan parte hartzeko gonbidapena gutxienez 3 enpresa edo interesatuei bidaltzea.

Epe barruan eskaintza bakarra aurkeztu zela eta, 2015eko irailaren 17ko Hirigintza/Landagintza Batzordean esleipen proposamena egitea adostu zela “Antonio Fernandez Jimenez” jaunaren alde, eta esleipen proposamenarekin batera, Pleguko 18. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa eskatu zitzaiola.

KONTUAN HARTUTA:

Esleipendunak eskatutako dokumentazioa aurkeztu duela.

Udal Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, aho batez honako hau,

ERABAKI DU:

LEHENA:

“Antonio Fernandez Jimenez” jaunari esleitzea “EZKIO-ITSASOKO HERRI ESKOLA ERAIKINEKO OSTALARITZA ZERBITZUEN EMAKIDA” kontratua, eta bere esku uztea dagozkion instalazioak.

BIGARRENA:

Ordaindu beharreko kanona aurreneko urtean 350,00 eurokoa (BEZ barne) izango denez, gainerako ostatuei trataera berdina emateko dagoen irizpidea kontuan hartuta, neurri berean kanona egokitzea.

HIRUGARRENA:

.....//.....

4-0-15-03: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Kontratua sinatzeko ahalmena Garikoitz Aiesta Etxaniz alkate jaunari ematea.

LAUGARREN PUNTUA:

ZOZABARRO-HANDI BASERRI AURREKALDE ETA EZKER ALDEAN DAGOEN 135,76 M2 AZALERAKO PARTZELA DESAFEKTATZEKO ESPEDIENTEA BEHIN-BETIKO IZAERAZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.

IKUSIRIK:

2015eko maiatzaren 26ko R-15-104 Alkatetzaren Ebazpenaren bitartez honako erabaki hau onartu zela: 2015eko maiatzaren 26an Ezkio-Itsasoko Udalak eta Jose Maria Arratibel jaunak lursailen trukaketa egiteko sinatutako kontratua onartzea eta hasierako izaeraz onartzea jabari publikokoa den Zozabarro-Handi baserri aurrekalde eta ezker aldean dagoen 135,76 m2ko azalerako lursaila desafektatzeko espedientea, patrimonial izaera bihurtzeko eta ekainaren 13ko 1372/1986 Udal Entitateen Ondasun Erregalamenduko 7 eta 8 artikuluek xedatzen dutenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea, hilabeteko epez, interesatuek aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, ohartaraziz behin-betiko onarpena emateko berriro dagokion erabakia Udal Osoko Bilkuran hartu beharko dela.

KONTUAN HARTUTA:

Jendaurreko epealdian, iragarkiak argitalpen hauek izan dituela:

- 2015-07-02ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- Udaletxeko iragarki taulan.

Jendaurreko epealdian ez dela alegaziorik aurkeztu.

Hori dena kontuan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez (gehiengo osoaren aldeko botuekin) honako hau,

ERABAKI DU:

LEHENA:

2015eko maiatzaren 26an Ezkio-Itsasoko Udalak eta Jose Maria Arratibel jaunak lursailen trukaketa egiteko sinatutako kontratua berrestea.

.....//.....

5-0-15-03: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

BIGARRENA:

Behin-betiko izaeraz onartzea jabari publikokoa den Zozabarro-Handi baserri aurrekalde eta ezker aldean dagoen 135,76 m2ko azalerako lursaila desafektatzeko espedientea, patrimonial izaerakoa bihurtzeko.

BOSGARREN PUNTUA:

2015EKO EKAINAREN 1EKO KONTU BATZORDE BEREZIAN EGINIKO BILERAN ALDEKO ONIRITZIA EMAN ONDOREN, 2014KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA ESPEDIENTEA BEHIN-BETIKO IZAERAZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Ikusirik Udal honetako Kontu Batzorde Bereziak, 2015eko ekainaren 1ean eginiko bileran bere oniritzia eman ziola 2014ko ekitaldiko aurrekontuaren Kontu orokorrari.

Ikusirik Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63.3 artikuluan xedatutakoa jarraituz, hamabost eguneko epean jendaurrean egon zela txosten hori, inongo erreklamazio edo oharrik aurkeztu gabe epe horretan (iragarkia 2015eko ekainaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

Kontutan hartuta 21/2003 Foru Arauko 63.3 artikuluan xedatutakoa, 2014ko Aurrekontuaren Kontu Orokorra Udal Batzarraren esku geratzen da bere behin-betiko onarpena eman diezaion.

Udal Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, aho batez honako hau,

ERABAKI DU:

LEHENA: 2014ko Udal Aurrekontuaren Kontu Orokorraren espedientea behin-betiko izaeraz onartzea.

BIGARRENA: Kontu Orokorraren onarpenaren berri ematea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, bere erregalamendu propioek ezartzen dutenaren arabera.

SEIGARREN PUNTUA:

.....//.....

6-0-15-03: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

EUSKAL HERRIKO EMAKUMEEN MUNDU MARTXA IV. NAZIOARTEKO EKINTZA-2015 GAIARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Udal Osoko Bilkurak aho batez onartu du honako deklarazio hau:

Udal honek Emakumeen Mundu Martxari babesa eman eta bere esku dauden baliabideekin berdintasunaren alde lan egiteko eta neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du, helburu hauekin:

- Indarkeriari dagokionez, ekintza protokoloak martxan jarri, sentsibilizazioan lan egin eta indarkeria matxistari dagokion formakuntzak burutzea. Halaber, EMMren protokoloari guru babesa adierazten diogu eta indarkeria sexistaren aurkako salaketa eta deialdiekin bat egiteko konpromisoa hartzen dugu.
- Zaintzaileen bizitzak hobetzeko lan egitera eta zaintza lanak erazteko zerbitzu publikoak ahalbidetzera.
- Aniztasun sexuala eta genero identitatea kontuan izanik lan egitea, eta lesbofobia, transfobia, arrazismoa eta kapazitismoaren aurkako planak burutzea.
- Emakumeen jabetza sustatzea eta baita saretze eta emakume taldeen sorrerak bultzatzea.

Gure babesa erakusten duen adierazpen hau Emakumeen Mundu Martxako Europako Ordezkaritzara bidaliko da.

ZAZPIGARREN PUNTUA:

“PAH KALERATZEAK/STOP DESAHUCIOS” AURKEZTUTAKO MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Udal Osoko Bilkurak aho batez onartu du, “PAH KALERATZEAK” aurkeztutako honako mozio hau:

- 1.- Udal honek “Kaleratsetik Gabeko Herri” deklaratzeko duen udalerrri hau.
- 2.- Udal honek beharrezko diren baliabide eta neurri guztiak erabiliko ditu lehen etxebizitzako kaleratze eta irtenarazteak geldiarazteko eta, behar izanez gero, bizileku bat izateko aukera bermatzeko.
- 3.- Udal honek etxegabetzeak saihesteko jarduera guztiak koordinatuko dituen pertsona edo organismo bat izendatuko du, betiere Kaleratzeak Stop Desahucioekin eta etxebizitza duin baten eskubidearen alde lan egiten duten gainontzeko elkarteekin lankidetzan jardunez.
- 4.- Udal honek udalerrri honetan jarduten duten finantza erakundeengana joko du fede oneko zordunen kaleratzeak geldiaraz ditzatela eskatzeko, jabetzan dituzten etxebizitza hutsen errolda galdatzeko eta hutsik dauden

.....//.....

7-0-15-03: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

etxebizitza hauek alokairu sozialeko programa publikoen zerbitzura jar ditzaten exijitzeko. Erantzunik jaso ezean, abian jarri beharreko neurriak aztertuko ditu, besteak beste, finantza erakunde hauekin lan egiteari uztea.

5.- Udal honek, kaleratze edo irtenarazte baten abisuaren aurrean, finantza edo administrazio erakundearekin bitartekotza egingo du etxegabetzea geldiarazteko eta, behar izanez gero, irtenaraztean udaltzaingoak komisio judizialari laguntza eman diezaion ekidingo du, kaltetuetako pertsonak bizi duen egoeraren larritasuna aztertuz eta konponbide justu eta egoki bat bilatuz. Etxegabetzea saihestu ezin izan denean, udalak beharrezko neurriak hartuko ditu kaltetutako pertsonen arazoizko prezioan alokairu sozialeko erregimenean berriz ostatu emateko.

6.- Udal honek kaleratzea edo irtenaraztea ekar dezaketen kasu guztien berri eman diezaioten galdegingo die epaitegi eskudunei, bazterketa arriskuan dauden kolektibo sozialak identifikatu, zerbitzu sozialek euren txostena eman eta kolektibo hauei bizileku bat eskaini ahal izateko.

7.- Udal honek, Alokabidek kudeatzen duen Etxebizitza Publikoen Parkeari dagokionean, Lakuako Gobernuari beharrezkoak diren erabaki eta modifikazio legalak burutu ditzan exijitzen dio, Gasteizko Legebiltzarrak pasa den 2014ko apirilaren zazpian etxebizitza publikoen inkilinoei buruz hartutako akordioa betearazteko.

8.- Udal honek titulartasun publiko zein pribatuko etxebizitza hutsen inbentario bat egingo du lehenbailehen. Bere jabetzakoak hiritarren bizileku premien zerbitzura jar daitezten beharrezko diren neurriak hartuko ditu, bereziki fede oneko diren zordunen etxegabetzea saihestu ezin izan den kasuetarako. Era berean, hiriaren etxebizitza beharrak aztertuko ditu sei hilabeteko epean eta, hauen artean, pilaketak; erabiliak izan ezin diren etxebizitzak edo berritzeak behar dituztenak ere kontuan hartuko ditu.

ZORTZIGARREN PUNTUA. Erregu eta galderak.

Ez dago erregu edo galderarik.

Beterik deialdiaren helburua, 19:30ak direnean, eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen da. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko irailaren 23a

.....//.....

8-0-15-03: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA

.....//.....

9-0-15-03: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA